

**6/2018 TXOSTENA, APIRILAREN 11koa, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA****XEDEA: OBRAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIAREN
ZIRRIBORROA****I.- AURREKARIAK.**

Indarrean sartu da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Ondorioz, orain arte nahitaez sartu behar ez ziren alderdi batzuk sartu behar dira baldintza-agirietan, eta, halaber, berriro definitu behar dira aztertzen gabiltzan prozedurako izapide eta figura batzuk eta kontratu-mota.

Era berean, baldintza-agirien ereduak egitean, ahal den neurrian, kontuan hartu eta islatu egin behar dira kontratazioko auzitegi administratiboen ebazpenak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bereziki Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpenak, bai eta autonomia-erkidegoko, Estatuko eta batez ere Europar Batasuneko jurisprudentzia ere, etengabe baitabiltza interpretatzen Europako Zuzentaruak eta horien ondorio eta transposizioak.

Beste alde batetik, aldatu egiten da kontratua prestatzeko ekintzak kontratatzailearen profilean argitaratzeko modua, beste ekintza batzuk argitaratu beharko baitira, eta baldintza-agiria laguntza egokia izan daiteke hori gogorarazteko.

Horregatik egin da orain aztertzen gabiltzan Baldintza administratibo zehatzen agiriaren zirriborroa, eta horren inguruko txostena egingo du batzorde honek.

II. – AURRETIKO GOGOETAK.**TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**



Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 4. apartatuak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena dauka aipatutako baldintza administratibo zehatzen agiriaren zirriborroari buruzko txostena egiteko.

Dekretu horren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aholku Batzorde honen Osoko Bilkurari dagokio agiri honi buruzko txostena egitea.

III. – EDUKIA.

Hauxe da testuaren edukia: Kontratuaren baldintza zehatzak, Baldintza orokorrak eta Eranskinak.

Kontratuaren baldintza zehatzak, era berean, hiru bloketan daude banatuta: Prestazioaren ezaugarriak, Adjudikazio-prozeduraren ezaugarriak eta Bestelako zehaztapenak.

Kontratuaren baldintza orokorrak horrela daude banatuta: Kontratuaren xedea eta alderdi orokorrak, Lizitazioa, Gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak baloratzea, Kontratua adjudikatzea eta formalizatzea, Kontratua exekutatzea, Kontratua azkentzea eta, azkenik, Gertakariak, eta ekintzak berrikustea.

Amaitzeko, hainbat eranskin daude kontratazio-prozesuan laguntzeko: baldintza-agirietako zenbait alderdi egiteko behar den informazioari buruzkoak, gutun-azaletan sartu beharreko dokumentazioari buruzkoak eta eskaintza onena egin duen lizitatuak zein kontratistak exekuzioan aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzkoak. Horien artean, nabarmentzekoa da Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), oso garrantzitsua baita.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Baldintza-agirien proposamen honetan errespetatu den arau-esparrua Europar Batasuneko kontratazioaren arloko zuzentarauak dira (ikusiko dugun bezala, horien transposizio partziala egin da), eta zuzentarau horietako printzipioak izan beharko dira kontratazioarako baldintza-agiri guztien oinarria. Hauek dira zuzentarau horiek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) Zuzentaraua, emakida-kontratuaren adjudikazioei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko



2014/24 (EB) Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25 (EB) Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan erakundeek egindako kontratuei buruzkoa eta 2004/17 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duena. Era berean, lizitatzailleek gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko aurkeztu behar duten dokumentazioaren tratamendua egiteko, kontuan hartu da 2016/7 (EB) Zuzentaraua, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua eta horri buruzko jarraibideak ezartzen dituen, baita horri buruzko Eranskina egiteko ere.

Testua bat dator Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak agindutakoarekin (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauek transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, SPKL). Izan ere, bertan ezartzen da nola egin behar diren baldintza-agiriak lizitazio publiko bat prestatu eta argitaratzeko.

Era berean, SPKLk indargabetu ez duen zatietan, errespetatu egin da 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

Halaber, bete egin da 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, indarrean jarraitzen duten zatietan, batez ere kontuan hartuta abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretua onetsi ondoren aldatu egin zirela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren hainbat manu (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsi zuen hori).

Amaitzeko, kontratazio publikoan eragina duten beste lege- eta arau-xedapen hauek ere hartu dira kontuan:

- 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioarena.
- 55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.



- 704/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, prezioaren ordainketa osoaren modalitatea erabilia egiten diren obra-kontratu administratiboen araubide juridikoa, aurrekontu-araubidea eta finantza-araubidea arautzen duena.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa.

V.- ONDORIOAK.

Hori guztia esanda, aldeko txostena eman zaio obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko baldintza administratibo zehatzen agiriaren zirriborroari, behar bezala egokitu baita Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) eta aipatutako gainerako arauen arabera.